

**ALKATETZA  
DEKRETUA**

2020 000000783

**Espediente-zenbakia:** 2020/IDA\_DEK0424**Xedea:**

**COVID-19REN ONDORIOZ SORTUTAKO EGOERARI AURRE EGITEKO ETA UDALEKO LANGILEEN OSASUNA BABESTEKO HELBURUAREKIN, BERMEOKO UDALEKO LANGILEAK LANPOSTUA TELELANAREN MODALITATEAREN BIDEZ GARATZEA.**

**Aurrekariak**

Lehenengoa: 2020ko martxoaren 12ko 2020000740 zenbakidun Alkatetzaren Dekretu bidez, Koronavirus (COVID-19) aurrean Bermeoko Udaleko Protokoloa ezartzea onartu da.

Bigarrena: Bermeoko Udala kontzientea izanik, ikastetxeak edo adinekoen zentroak itxeko erabakiak kontziliazio-arazoak eragiten dituela langile askorengan, 2020ko martxoaren 13ko 2020000761 Alkatetzaren Dekretu bidez, egoera horrek irauten duen bitartean, lana eta familia bateragarri egiteko neurriak erraztea erabakidu.

Hirugarrena: Ezartzen diren kontziliazio neurri horien artean, telelanaren modalitatea aurreikusten da, Bermeoko Udalak helburu baitu udal instalazioetan langileen presentzia minimizatzea.

Aipatutako Alkatetzaren Dekretuan telelanaren aukera aurreikusten da Koronavirusaren arriskupean egon daitezkeen edo susmoa duten langileentzat. Kontuan izanda COVID-19ren bilakaera, Bermeoko Udalak zerbitzua lantokian bertaratu gabe ematea indartu nahi du, telelanaren modalitatearen aukera kasu guztietara hedatuz.

**Erabakia**

Lehenengoa: Alarma egoera berezi eta premiazkoak irauten duen bitartean, Udaleko langileen osasuna babesteko eta udal instalazioetan langileen presentzia gutxitzeko helburuz, Bermeoko Udalak zerbitzua lantokian bertaratu gabe emateko aukera indartuko du, lanpostua telelanaren modalitatearen bidez garatu daitekeen kasu guztietarako, beti ere, telelanaren erregelamenduan ezarritako baldintzak betetzen badira.


**Sinadurea eta data**

Bigarrena: Kasu bakoitzean, helburuak, funtzioak, emaitzak, ordutegiak eta abar horretarako prestatuko den instrukzioaren bidez eta sailburuek emandako instrukzioen bidez arautuko dira.

Hirugarrena: Beharrezkoa den kasuetan, langilea lantokian bertaratu beharko da.

Laugarrena: Osasun eta segurtasuna eskubideak eta betebeharrak betetzea.

**Oharra:** sinadurea eta dataa orri-oinean .

 <b>STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI</b>	Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu. Kodea: 07E40003ED9A00P7M8D0O1Q0N1	<b>Sinadurea eta dataa</b> ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 17/03/2020 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 17/03/2020 12:49:21	EXPEDIENTE :: 2020IDA_DEK0424 Data: 17/03/2020 Lekua: Bermeon Erregistro unidatea: Erregistro nagusia
---	--	--	--

